

2018/02/28

[MENUA](#)

Idatzi bilaketa hitza(k)

Bilatu

[HERNANI GOIZUETA](#) [ARANO EREÑOTZU](#) [ASTIGARRAGA](#) [Multimedia](#) [Publizitatea](#) [Bazkide](#) [KOMUNITATE](#)
[Hemeroteka](#) [egin](#)

albiste//EUSKAL SAGARDOA

Sagardoaren bigarren urtean hirukoiztu, sagardo produkzioa

2017koa, azken urteetako uztarik emankorrena izan da eta jatorri deiturara bideratutako 4 milioi litro egin dira.

ASTIGARRAGA

2018/01/13 00:00 Larunbata

Euskal Sagardoa jatorri deiturak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagastiak eta sagardogileak biltzen ditu eta beraz, tokiaren eta sagar moten arabera aldea izan liteke, baina orokorrean uzta handia izan da. Aurtengo uztan, 4 milioi litro sagardo egin dira Euskal Sagardoa jatorri deiturara bideratuak, eta horretarako, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 6 bat milioi kilo sagar erabili dira, iazko uztan baino 4 bat milioi kilo gehiago. Hirukoiztu egin da produkzioa bigarren urtean.

Hala ere, bertako sagar gehiago izan da aurten, baina, sagar guztiek ez du balio Euskal Sagardoa egiteko. Izan ere, sagastiek zenbait baldintza bete behar dituzte kalitatea bermatu ahal izateko. Geroz eta gehiago dira prozesu horretan sartzen ari direnak, Euskal Sagardoa jatorri deitura urrats garrantzitsua baita sektoreari bultzada eman eta produktuaren kalitate parametro onenak ziurtatzeko bidean.

Euskal Sagardoa egiteko 250 hektareatako sagarra erabili da eta 200dik gora izan dira sagargileak. Ezinbestekoa da sagarzaleen lana, Euskal Sagardoak aurrera egin ahal izateko, oinarria lehengai baita eta profesionalizazio lan horretan ari da jatorri deitura, kalitatezko sagarra eta uzta orekatuak lortu ahal izateko.



PDF

ASTIGARRAGA *Otsailak*28

48 sagardotegik egin dute eta horietatik laurdenak, 12, astigartarrak dira

Aurten, iaz baino sagardo gehiago egin da Jatorri Deiturara bideratuta eta 48 sagardotegik egin dute sagardoa, 13 gehiagok. Horien artean Astigarragako Alorrenea, Astarbe, Bereziartua, Gartziategi, Gurutzeta, Lizeaga, Petrítegi, Zapiain, Etxeberría, Irigoien-Herrero, Ipintza eta Larrarte.

Euskal sagardoa eta euskal sagarra balioan

Euskal Sagardoa Kontseilu Arautzailean Euskadiko Sagargileen eta Sagardogileen Elkarte guztiek dute ordezkartza eta orain dela pare bat urte helburu nagusizat markatu zuten bai Euskal Sagardoari eta bai Euskal Sagardoa egiteko sagarrari balio handitzen joatea, sektore jasangarri bat indartu eta etorkizunerako oinarriak sendo jartzeko. Bide horretan pauso garrantzitsuak ari da ematen sektorea eta hala emango dira datozen urteetan ere.



HERNANI Otsailak 28

Atsegin dut 0

Tweet

Whatsapp

Emaila

Inprimitu

IRUZKINAK

0 Iruzkin

kronika-eus

1 Saioa hasi ▾

Gomendatu

Partekatu

Zaharretik hasita ▾



Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?



Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu

Gehitu Disqus zure webguneraGehitu DisqusGehitu

Pribatutasuna

Puri-Purian

Kolpeka lurra esnatu, ... (1)

gurean.eus (/)

